

Aita Larzabal itzali zaigu

Argia, 1.183. zk., 1987-01-24.

Lau hitzetan bi figura erabili ditut. Lehenengoa, "aita", apez askoren gustokoa ez bada ere, Piarres Larzabal apez jauna ikusi dut neuk kristau eta euskal izpirituaren eragin hutsez iheslari gazteak jaso eta ogia eta babesa ematen, haragizko semeak balitu bezala gordetzen, eten gabeko sailetan heltzen ziren garai hartan; maitasunak iturri asko baititu. Eta "itzali" esan dut egin zela aita Larzabal, ikusi baitut neronek, Sokoan bere eraginez eraikitako elizatxoan gorpu gazte baten aurrean esaten ari zen hitz dardarretan zotin-nigarrez kandelen malkoak bezala barruko muka errearen bihurkadaren minez begietatik erortzen.

Carrero justiziatu zutenez gero batez ere.

Polizien eta guardien erasoek gehitzen eta gordintzen joan ziren moduan zetozen auskalo nondik nora, zer iraganbide hertsietatik, zakurrez jarraikiak, bertzaldetik, handik; aiten eta aitonen berrogei urteko gerra oraindik amaitu gabe, hemen zetozen bilobak, semeak, etxeko bizitza batetik bestera, purifikaziozkoa zela esaten zuten suari ihesi...

Apez-gizon honek ez zuen lorik ere egiten, zenbatetan!

Arreta eta maitasun honen ordainez, aitatxi, aitatto eta aitona deitzen zioten.

Euskaldun guztiak anai sentitu ginen estualdi hartan, eta neuk ikusi nuen bezain ongi gogoratuko dira beste asko, oraindik zutik eta burua argi, soinez handia ez zen gizon erraldoi hura, apezgoak eta abertzaletasunak eraginda beti adi, isilik askotan; telefonotik zintzilik Parisko prentsarekin edo Frantziako poliziarekin hizketan, garai hartan polizia hau bestelako zenean... Hamar urte gero joan nintzaion lagun batez Telebistako Video bat egiteko asmoz, beste dozena bat gizonen artean lekua ongi irabazi zuelako euskaldunen historian, baina ez nuen gizon bera aurkitu; zoritxarrez, elbarritua zegoen ordurako.

Argi eder hura, kristau fedez eta herriaganako leialtasunez sutan bizi izandu zen ispiritu hura ageri zitzaion oraindik noizbehinka begietan, faroek gau ilun-beltzetan egiten duten moduko begikeinu laburretan; baina biziaren azken pilak erretzen baleude bezala iluntzen zitzaion bekokia txapelaren magalean, eta betaurreko kristal lodien isladak geratzen ziren, kanpotiarrak, bonbila elektrikoak prestatzen zizkionak.

Kandela handienak ere erre eta ahitzen diren legez.

Irten ginenean, ikusten nuen oraindik nire irudimenean betirako gordeak geratu zaizkidan irudietan aita Larzabal hizketan. Hitz egiteko, aldaretarako egin zioten zurezko txalupa geldi baten aurrean jartzen zen, batzutan paperik gabe, barruan zuena bertsolarien gisa bere etorriaz gozatzen, barruan zuena esaten; edo aurrez, eta hain

egoki!, idatzi zuena irakurtzen; batzutan, gaztearen gorpua aurrean, bertzaldeko senideak bertan zituela; eliza, gaztez betea, bere minak denen aurrean isuritzen itxaropenerako Bidean; beste batzutan, gazte horietako baten ezkontzarako inbentatzen zuen irripar itxaropentsu eta gozoa Biziari kantatzen.

Beti egoki, beti argi; zorrotz edo gozoki, baina beti bihotz betez benetako.

Sokoa herriko eta euskaldun guztientzako babes bihurtu zuen elizaxoan azken agurra egin berri diotenean, hor zegoen hilotza bere gotzai onez eta apez anaiez eta herriaz (hemengo eta hango, lau alderdietatik etorritako herriaz) inguratua. Gauz eder asko entzun zen hemen: txalapartaren zurezko kanpai hotsak, Larzabal berak izendatutako apezlagunak irakurri zuen Piarresek 1979an bere eskuz idatzi zuen testamentu ederra, gotzai jaunaren hitz egokiak, bertsolariak, nola ez!; eta gero bere gorpua ehortzerakoan elizaxoaren babesean: aurrekua eta txistua, haurrak ahots xuriez aingeruki abestu zioten kanta polita, eta, azkenik, Eusko Gudarien abesti Herriak, berez.

Zure exenpluarekin, eta idatzi zenituen hainbat Elizako idatzi, gizarteko artikulu eta antzerki ederrekin utzi gaituzu konpainia ederrean.

Agur, aita Piarres Larzabal, agur t'erdia.